




TXOKO KUTTUNAK

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

[2025/10]

LEA-ARTIBAI,
MUTRIKU ETA
BUSTURIALDEA

HITZA

Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?

Oka ibaiaren estuarioaren ezkerlaldean eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: **flysch-ak, diapiroak, dunak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!**

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Orintxe bertan, aktibitate hauek **Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu.** Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. **Begiratu nahi al duzu?**



EKO BIDEAK

Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaian baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Kontaktua:


666 85 77 61
688 62 72 42

ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com



*Geoturismoa eta
Ingurumen
Hezkuntza...
hitzak eta zeozer
gehiago!*



aupa@urdaibaiaexperience.com

www.urdaibaiaexperience.eus

[@urdaibaiaexperience](https://www.instagram.com/urdaibaiaexperience)

+34 944 669 804 | +34 622 017 175



URDAIBAI
experience & travel



AURKIBIDEA

EKOBIDEAK (Leioa)	2
URDAIBAI EXPERIENCE	2
ITSASMENDI UPATEGIA (Gernika-Lumo)	4
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	4
GURUTZEGRAMA · HITZA	5
OGOÑOPE SURF (Laga-Ibarrangelu)	6
GAMENTXO (Ibarrangelu)	6
EA	7
HEMINGWAY (Sukarrieta)	8
GAUTEGIZ ARTEAGA	9
BIZKAIKO TXAKOLINA	10
BASONDO (Kortezubi)	11
AISTA LANDETxea (Ajangiz)	12
ARROLAGUNE (Arratzu)	12
MUXIKA, GOROZIKA ETA IBARRURI	13
LURUNA HOTELA (Mundaka)	14
NABARNIZ	15
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	16
MUTRIKU	17
YURRITA (Mutriku)	18
ARBE HOTELA (Mutriku)	19
ONDARROA	20
BERRIATUA	21
AZOKA (Berriatua)	22
MARKINA-XEMEIN	23
ANTSOTEGI (Etxebarría)	24
ETXEBARRIA	25
ZIORTZA-BOLIBAR	26
MUNITIBAR	27
AULESTI	28
LEKEITIO	29
ISPASTER	30
MENDEXA	31
LEA IBARRA	32



Zatoz gurera

Zatoz gurera! Etxean bezala sentiarazi eta gozo hartuko zaitugu». Gonbidapen bero hori onartuz gero, hamaika txoko berezi eza-gutu, eta hamaika esperientzia eder edukiko dituzu. Udazkenak asko dauka eskaintzeko, baita Lea-Artibaik, Mutriku eta Busturialdeak ere. Arburutik Zapolazpira, Mutrikutik Bermeora, baduzu non aukeratu. Herriz herri, bailaraz bailara, bidaia liluragarria duzu aukeran. Ondarea zaintzearen eta jasagarritasuna bermatzearen adibide dira bertoko udalerriak, eta txoko kuttunez beterik daude.

Udazken bete-betean, proposamenik ez duzu falta. Itsaslabar, baso, mendi, plaza... zain dituzu.

**TXOKO
KUTTUNAK**
TURISMO GIDA
[2025/10]

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**
Lege gordailua: **BI-2906-03 · ISSN: 2173-7118**
Helbidea: **Arretxinaga Etorb., 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-684 44 36**
Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus**
www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Testuak eta publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**



Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

HITZA

ITSAS MENDI



Txakolinaren
Magia

bodegasitsasmendi.com
artizarenoturismo.com



Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94-625 19 30

www.euskalsouvenirs.com

**EUSKAL
SOUVENIRS**

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*



@euskalsouvenirs

**Osatu alboko
GURUTZEGRAMA
gida honetan
irakurri eta aurki
dezakezun
informazioarekin.**

PARTE HARTU ZOZKETAN!

1. Osatu
gurutzegrama hau.


2. Bidali
gurutzegramaren
argazkia, harpidedunaren
izen-abizenak eta kodea
postaz

(maitadezagunhitza@hitza.eus)
edo **WatsApp**
747 49 29 25era.

Eta zorte on!

EPEA:
2025eko urriaren 26a
baino lehen.

SARIA:
Bidaiazteko produktu
sorta.



Ezkerretik eskumara

2. Spa, sauna eta masaje terapia duen hotela.
5. Ygnacio Contreraren sorterriko edari tipikoa.
7. Izen propioa duen euskal ardoa zuria.
8. Oppidum-aren interpretazio zentroa.
11. Gerrikaitzeko jaiak ospatzen diren hilabetea.
12. Non dago Mikel Lertxundiren *Indargei* artelana?
16. Gametxo hotela kokatuta dagoen herria.
20. Ziortza-Bolibarko pilotari ohia.
22. Kantauriko antxoak eta bokartak saltzen ditu zuzenean eta online.
23. Urdaibaiko bihotzean dagoen landetxea.
26. Ondarroako dantzaria eta sortzailea.

27. Geoturismoan eta Ingurumen hezkuntzan diharduen Bizkaiko kooperatiba txikia.
28. Zein herritan amaitzen da Lea ibilbidea?
29. Mundakako Goiko kalean dagoen hotela.
30. Zapolako bunkerra dagoen herria.
31. Zein da Bizkargi mendilerroko 2. tontor garaiena?
32. Nola deitzen diote herritarrek Mendexari?

Goitik behera

1. Basafaunaren babeslekua.
3. Non dago Euskal Souvenirs?
4. Lagako surf eskola.
6. Ispasterko jai nagusiak.
9. Bakearen Museoko erakusketa.

10. Zeintzuk dira Samikollako jaiak?
13. Natxitu eta Bedarona zein herritako auzoak dira?
14. Zelan hasten da Urdaibai experience & travelen posta elektronikoa?
15. Gaitegiz Arteagako eskola.
17. Ander Okamikaren lanbidea.
18. 2015ean Euskal Turismo saria eskuratu zuen hotela.
19. Zein herri dago itsas mailatik 360 metro gorago?
21. Zein mendetakoa da Bolineneko errota?
24. Emilio Hernando eta Kata Etxebarriak 2002an ireki zuten hotela.
25. Urdaibaiko txakolin ekoizlea.



Ogoñope

SURF IKASTAROAK

LAGAKO HONDARTZA



Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€

Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com

664579954

Sentrazioz betetako tokia

HOTEL gametxo



Gametxo Auzoa | Ibarrangelu | 94 627 77 10

BEDARONA



Esther Korta Gabiola

Naturaz inguratuta baino, naturan bertan bizi dira bedarutarrak. Hala adierazi du Esther Korta Gabiolak. «Alde batera, itsasoa; eta bestera, mendiak eta basoak. Leku lasai eta zoragarria da». Horregatik, horixe du berak toki kuttun.

Hiru eremu ditu Eak: batetik, erdigunea; eta bestetik, Natxitua eta Bedarona auzoak, biak herri izandakoak. «Orain ehun urtetik gora, hiru guneen artean herri bakarra osatu zuten. Hala ere, geuk geureari eutsi eta bedaruarrok garela diogu», argitu du. Nortasun hori sendotzen lagundu du bere kokapenak. «Bedarura propio etorri behar zara; ez dago bide batez», azaldu du. «Herritxu» bat osatzen dutela esan du, eta denak elkarregaz hazi direla. «Ume garaian, guztiok batera ibiltzen ginen, etxetik kanpora olgetan».

Ogella

Bedarona osorik maite duen arren, leku bat nabarmendu du: Ogella. «Bedaruko Ogella esaten diogu guk. Ume-umetatik joan izan gara bertara, azkari eta guzti arratsalde pasa. Edo egun guztirako ere bai. Elexaldetik irten eta oinez ordubetera edo dago, gutxi gorabehera, eta polita zen bidean elkarregaz kontu kontari abiatzea, baserri arte-tik eta kresal usainari segika», gogorarazi du. Usain horrek, gaur egun, gazte denboretara darama. «Lehen hondartza txikitxo baten modukoa zegoen, eta han elkartzen ginen bedaruarrok, batzuk eguzkia hartzen zeuden bitartean, beste batzuk arrantzan edo lapak eta magurioak batzen edo bainatzen».



**Esther
Korta
Gabiola**
(Irakaslea)

**«Gauza ederra zen
Ogellara elkarregaz
olgetan joatea,
kresal usainari segika»**

Urteak igaro dira, baina orain ere gustatzen zaio han egotea. «Gauza ederra da olatuak entzun eta kresala usaintzea. Lasaitasuna ematen du, eta orduak egon zaitezke itsasoari begira. Bedarun moduko herri baten bizitzea aparta da. Ez dago dirurik hori ordaintzeko».



EAKO UDALA

Donibane plaza, 2

94-627 52 27

Faxa: 94-627 51 99

udala@ea.eus

www.ea.eus

www.eaturismo.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

ZURE ZAIN GAITUZU



Mundakako
itsasadarraren
bihotzean



EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta
masaje terapia



LORATEGIA

Lorategi zoragarria
itsasora begira



NATURA

Naturazaleentzat
ihesaldia egiteko
toki paregabea



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19
48317 Sukarrieta – Bizkaia
(sarbidea, Gautegiz-Arteagatik)

inspiratu zaitez

<https://casarural-kanala.com/>

casaruralkanala@gmail.com

666680801/618774398



Gautegiz Arteaga

MONTORRE ESKOLA



Ane Maruri Aransolo

Eskola du toki kuttun Mari Cruz Berrojaetxebarria Etxabek. «Hor daude herriko beste hainbat leku eder ere, besteak beste, baselizak, gaztelua, ur errotak eta padura, baina niretzat berezia eskola da, esanahi handia daukalako», adierazi du.

1872an ireki zuten Gautegiz Arteagako ikastetxea. Neska-mutilek eraikin banatan ikasi zuten, 1974. urtera arte. Ordutik aurrera, etxe berean hazi eta hezi dira herriko umeak, Montorre eskolan.

Eskola martxan, herria bizirik

Lotura afektiboa dauka Artiakoak eskolagaz. «Etxe askotan, belaunaldi bat baino gehiagok eduki du harremana beragaz. Gure etxean ere horrela izan da. Nire kasuan, nire ama, ni neu eta nire semea hango ikasleak izan gara. Gainera, nire maisua eta nire semearena pertsona bera izan dira», esan du.

Dantza taldekoaren ustez, eskolak zerikusi handia dauka komunitate baten garapenean. «Herri txiki bat bizirik mantentzeko, eskolak bizirik eustea lortu behar du herri horrek: herriko ohiturak estutzen ditu, eta, horren bestez, herriarekiko atxikimendua sendotu. Eta gure artean, hau da, gurasoen artean zein irakasle eta gurasoen artean, lotura handitzen da», arrazoitu du.

Herriari begira eskolak egiten duen ekarpena gogoan hartu du Berrojaetxebarria. «Herrira begira gauza asko antolatzen dira, esate baterako, San Juan Eguna, Gaztañe-



Mari Cruz Berrojaetxebarria Etxabe
(Artia dantza taldeko kidea)

«Herri txiki bat bizirik mantentzeko, eskolak bizirik eustea lortu behar du herriak»

rre eguna eta inauteriak». Badaki kezka, asmo eta amets berak partekatzen dituztela inguruko hainbat herri txikiek ere. Horren adibide da Busturialdeko eskola txikiek antolatutako ohi duten jaia. 2026an, hain zuzen ere, Gautegiz Arteagan izango da.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA

Herriko Enparantza, 1
94-625 29 53

udala@gautegizarteaga.eus

www.turismogautegizarteaga.eus

HITZA

Bizkai-
ko Txakolina.



Zure plana!



Lurra, itsasoa, mendia, nortasuna,
gastronomia, kultura, historia ...
Izen propioa duen ardoa: Txakolina.

Dastatu, ezagutu eta gozatu
Bizkaiko Txakolina!



Unión Europea
Fondo Europeo Agrícola
de Desarrollo Rural
Europa invierte en las zonas rurales

Edan neurritz, zure ardura da.

Ezagutu
upategiak

bizkaikotxakolina.eus



Kortezubi



BISITA MOTAK

Norbanakoak:

Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu (jaiotzak, espezie berriak...). Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak (euskaraz eta gaztelaniaz). Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri guztiak azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta (haur zein nerabeak). Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Astelehenetik ostiralera:

11:00etatik 15:00etara.

Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:

11:00etatik 18:00etara.

PREZIOAK

Norbanakoak: Helduak 10 euro eta umeak 6.

Taldeak: Bisita gidatueterako erreserba egin behar da. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, sarrera ordaindu eta gidaria dohainik izango da. 20 pertsonatik beherako taldeek, 35 euro ordaindu beharko dituzte gidaria eduki nahi izanez gero.



Basondo, basafaunaren babesleku

Animalia basatiek ere badute beraien etxea Euskal Herrian, eta Basondo da horietako bat. Zoologikoa izatetik urrun, bertako basafaunaren babeslekua da Basondo. Arrazoi desberdinak tarteko, bertan dauden animaliak ezin dira naturan askatasunean bizi, oreinak, otsoak, katamotza, sai arrea eta putrea, esaterako.

Animalia hauek zaindu eta sentibilizazio lana egitea dute helburu, irabazi asmorik gabe. Animalia gehienak errekupeazio zentroetatik datozenak dira, eta gertutik ikusi eta kon-

taktu zuzena edukitzeko aukera dago kilometro bateko ibilbidean zehar, nahi izanez gero azalpenez lagunduta.

Faunaren aterpe izateaz gain, geologia eta botanika berezi batek ingura-tzen du Basondo. Euskal Herriko basoa ikusi daiteke bertan, arestiekin, esaterako. Parean, babes-tutako gunea dago: artadi kantaurrea, kareharria da bertako lurra, eta horrek dolinak eta kobazuloak egotea errazten du. Horietako bat, esaterako, Basondoko ibilbidearen barruan ikusi daiteke.



BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi


94-625 44 36

info@basondo.com

www.basondo.com



Guztirik deskonektatzeko baina guztirik gertu!
ZURE LANDETXEA URDAIBAICO BIHOTZEAN



Arrolagune

Arrolako Oppidum-aren
Interpretazio Zentroa

IGANDE GUZTIETAN ZABALIK

10:00 - 14:00

ARRATZU, Loiola Auzoa

SARRERA DOAN

634 243 762



Muxika, Goroizika eta Ibarruri

ARBURU MENDIA



Lorea Ojanguren Gabikaetxebarria

Arburu mendira igotzea gomendatu du Lorea Ojanguren Gabikaetxebarria muxikarrak, horixe du berak toki kuttun, eta uste du bisitarientzat ere erakargarria izan ahal dela bertatik bistarazten den ikuspegiagatik.

«Tontorretik kostaldea parez pare dago: Busturialdea eta Urdaibai. Hori bada edozeinentzat nahikoa eragingarri. Horrez gain, niretzat ere bada beste arrazoi bategatik ere erakargarri: gure etxea eta auzoa argi-argi begiztatzten da bertatik. Gauza ederra da norbere lekua beste ikuspuntu batetik ikusi ahal izatea», adierazi du.

Deskonektatzeko

Umetan ez zuen eduki Arburura joateko ohiturarik. Gaztetan, oster, bai. Eta oraindik orain, burua garbitzeko baliatzen du muxikarrak harainoko ibilbidea. «Arnasgunea» da beretzat, «deskonektatzeko puntu bat». Eta zailtasun handirik gabekoa ere bai, hori kontuan hartu nahi duenarentzat. «Txango hori edozeinek egin ahal du: familian edo bakarrik. Erraz egiteko modukoa da. Bizkargira igotzea baino errazago», argitu du.

Bizkargi mendilerroko bigarren tontor garaiena da Arburu (550 metroko garaiera dauka), eta haren aldean interesgarriago, bere ustez. «Bizkargitik baino nahiko paisaia politagoa ageri da bertatik».

Bi bide daude Arburura igotzeko: edo Goroztikatik edo San Roman auzotik. Bigarren bide hori aukeratuz gero,



Lorea
Ojanguren
Gabikaetxebarria
(Gizarte langilea)

**«Gauza ederra da
norbere lekua beste
ikuspuntu batetik
ikusi ahal izatea»**

ehun urtetik gorako arta zuhaitza eta dorrea ikusteko aukera edukiko du bisitariak.

Mendia gustuko duenak hurrengorako ere gorde ahal du Muxikako plana. Oiz topatuko du ekialdean, eta Bizkargi mendebaldean.



**MUXIKAKO
UDALA**

Muxika, Goroizika eta
Ibarruriko herriak
Hiru herri udalerri bat

Ugarte auzoa, 1
94-625 27 01

bulegoa@muxikakoudala.eus
www.muxikakoudala.eus



HOTEL

LURUNA

PALACIO LARRINAGA – MUNDACA



HOTEL LURUNA PALACIO LARRINAGA
GOIKO KALEA, 39 · 48360 MUNDACA · +34 846 61 00 47
HOTEL@LURUNA.COM · @LURUNAHOTEL

www.luruna.com

Nabarniz

ILUNZAR, FRONTOIA ETA TXOKOA



Unai Aranaz Urzaa

Bakar batez ezin geratu, eta hiru leku ditu kuttun Unai Aranaz Urzaa nabarniztarrek jaioterrian, Iluntzar, frontoia eta txokoa, eta bakoitzari horrelako merezimendua emateko hainbat arrazoi zehaztu ditu.

Nabarniz itsas mailatik 360 metro gorago dago, eta herriko punturik altuena Iluntzar mendia da (728 metro dauzka). «Igotzeko erraza da, ez dago hain altu eta. Ikuspegi ederrekin, kristoren parajea da. Pribilegio hutsa etxearen ondo-ondoan», dio Aranazek.

Ez aspertzeko modura

Hainbat xendratik heldu daiteke Iluntzarrera, han zuzen, Merikatik, Ikazurietatik eta Lekerikatik —Aranazen auzoa—. «Hortaz, aukera daukazu, oraintxe bide bat eta oraintxe beste bat hartzeko. Edo batetik igo eta bestetik jaisteko. Nahiz eta beti tontor berera joan. Ez aspertzeko modura», esan du.

Aranaz txikitatik futbolearen ibili izan da, eta orain utzita daukanez, kirola egiteko parajeok ematen duten aukera probesten du. Frontoian, adibidez. «Hain herri txikiak horrelako frontoia eta horrelako instalazioak edukitzea gauza handia da, eta bai umetan, bai gaur egun, bertara joateko ohitura eduki dut, palan zein pilotan jolastera». Horrenbestez, herriko bigarren toki kuttunena aurkeztu du Aranazek. Eta hirugarrenagaz errematatu: plana mendira edo frontoira joatea delarik ere, txokoa amaitzea



Unai
Aranaz
Urzaa
(Irakaslea)

«Kristoren parajea da; pribilegio hutsa etxearen ondo-ondoan»

gustatzen zaio. Bazkideentzat eta bazkideekin joaten direnentzat dago zabalik. Gainera, gogorarazi duenez, herrian taberna bat baino gehiago daude kanpokoen erakargarri, mendi osteraren ostean bapo bazkaltzeko indaba eta menestra ospetsuen erreklamuagaz.



NABARNIZKO UDALA

Ellexalde auzoa, 2
94-625 50 77
Faxa: 94-625 65 12
udala@nabarniz.eus
www.nabarniz.eus

ORRATZ-BEGIA EL OJO DE LA AGUJA

2025/10/03 - 2026/02/15



1936ko gerran erbesteratutako 34.000 haur baino gehiagok Ameriketara, Belgikara, Kataluniara, Frantziara, Britainia Handira eta SESBera egindako bidaian, eta memoria hori, hurrengo belaunaldiei egindako transmisioan oinarritutako erakusketa.

EUSKAL HERRIA MUSEOA • Allendesalazar 5
GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA / MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA • Foru Plaza 1
GERNIKA-LUMO • BIZKAIA • EUSKAL HERRIA

Antolatzaileak eta erakusleak •

Elkarlana •



Mutriku

SAMIKOLLA

Malen Pazos Illarramendi

Samikollakoa da Malen Pazos mutrikuarra. «Auzorik onena», bere irudiko. Eta bai auzoa, bai ingurua du Mutrikuko toki kuttun, arrazoi bat baino gehiago tarteko.

Bizitokia abiapuntu, Santabatatik Santa Elenara joan-etorria egitea proposatzen du ilustratzaileak. Berak ere askotan egiten du bide hori, bakarrik, lagunekin zein familian, eta bizkortu eta deskonektatzeko baliatzen du. «Askotan jotzen dut bertara. Ondo sentiarazten nau. Arbola tartetik zoaz, itsasoa bistan daukazu, bide lasaia da, jende gutxi ibiltzen da eta lasaitasuna transmititzen dit».

Paisaia, lanerako erreminta

Pasaia ez da bere lanaren objektu; erreminta bai, ordea. «Etxean egiten dut lana, eta etxetik itsasoa eta inguru eder hori ikusita, ezin gusturago egoten naiz: lasai lan egiten laguntzen dit». Gainera, urratsei jarraiturik, lehengo Mutrikuren oihartzunak ere bistaratu zaizkio Malen Pazosen gomendioari segi egiten dionak, Santabatako hondakinekin topo egiten duenean. Estreinako 1557an dokumentatua, fededunek 1770an utzi zioten hara joateari, nahiz eta kanpaia jotzen jarraitu zuten eguraldiak laguntzen ez zue-nean etxerako bidean zetozen txalupak orientatzeko.

Onartu du Mutrikun dena dagoea eskura, baina bere ustez Samikollan biziz gero kontrastea handia da. «Erditik hurrean dago, eta era berean lasaia da», nabarmendu du. Leku baketsua izanagatik, oster, Samikollakoak ez daude



Malen
Pazos
Illarramendi
(Ilustratzailea)

**«Arbola tartetik zoaz,
itsasoa bistan;
lasaitasuna
transmititzen dit»**

geldirik. Auzoan jaiak antolatzen dituzte iraileko lehenengo asteburuan, San Nikolas ermitaren inguruan. 1605eko eraikinak —aurretik zegoen beste baten ordezkira eraikia— jende asko bildu ohi du auzokideek familia osatzen dutela irudikatuz. «Auzoak nortasuna dauka», dio.




GEOPARKEA
EUSKAL KOSTALDEA - COSTA VASCA

MUTRIKUKO UDALA
TURISMO BULEGOA:

Txurruka Plaza, z/g · **943-60 33 78**
turismo@mutriku.eus
www.mutriku.eus

HITZA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAURIKO
ANTXOAK ETA
BOKARTAK**



**HEGALUZZA
ETA
HEGALABURRA**



**ESKUZ
EGINDAKO
KROKETAK**



**BESTE
PRODUKTU
GOURMETAK**

🕒 Zuzeneko salmentaren udazkeneko ordutegia:
Astelohenetik-ostiralera: 9:00-15:00

🛒 Online salmenta: www.tiendayurrita.com



sarean edota dendan erosteagatik

%20ko deskontua

Zuzeneko salmentan: 50€ tik gorako erosketetan, azaroan erabilgarri

Online salmentan: 50€ tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #YURRITA20

Mutriku



ARBE HOTELA

ZERBITZUAK

- Kafetegia
- Doako aparkalekua
- Harrera 24 ordutan
- Hatz-marka digitala geletan sartzeko
- Wifia
- Satelite bidezko telebista
- Ibilbide kardiobaskularrak
- Km0 dendarak
- Spa (bi etzaulki termiko)



Itsasoa zure logelan

2015ean Euskal Turismo Saria eskuratu zuen Mutriku eta Deba arteko gainean kokatuta dagoen Arbe Hotela. Izan ere, kokapen bikaina ez ezik, hotelaren beraren egitura eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea ere saritzekoak dira. Hotel familiarra da: gertuko tratua eta naturarekiko maitasuna dira Arberen markak.

Eraikin abangoardistako 11 logelak daude diseinatuta Kantauri itsasoarekin bat eginez. Bisitariaren begirada itsasoaren ortzimuga zabalean dago, egunez zein gauez ikuspegi liluragarriaz gozatzeko. Logeletako bat aniztasun funtzionala dutenentzako prestatuta dago. Igerilekua ere badago Arben, eta hor ere sentrazioa berbera da: Kantaurirekin fusionatzen da uretan zaudenean.

Naturarekin bat eginda dago Arbe, paisaia ez ezik, baita bere irizpideetan ere. Izan ere, energia geotermikoa erabiltzen du, neguan zein udan eraikin osoa klimatizatzen. Inguruko belardiak eta baratzea ureztatzeko, berriz, euri ura erabiltzen dute. Era berean, bertako labean egindako gozo ekologikoak, zuku naturalak eta jogurtak eskaintzen dituzte gosarietan. Arben hurbileko produktuak erabiltzen dituzte ahal den guztian, eta dendatxo bat ere badago, inguruan ekoiztutako eskaintzarekin. Garbiketako produktuak aukeratzera ere, naturarekiko errespetua izaten da irizpidea.

Erlaxatzeko eta aktibatzeko, bietarako aukerak eskaintzen dituzte. Erlaxatzeko bidean, bakarka edo bikoteka, ordubeteko masajearen ondoren, sauna eta etzaulki termikoetan etzan eta lasaitasuna sakon arnastu ahal izango duzu. Aktibatzeko, berriz, ibilbide kardiobaskularrak eskaintza duzu.

Asteburua edo oporrak igarotzeko leku oso aproposa izateaz gain, enpresako zein taldeko bilerak egiteko gela berezia ere eskaintzen du Arbek: talde lana bakean egiteko aukera bikaina, *catering* zerbitzuarekin.

Naturaren parte

Arbek begi bistan ditu Zumaia, Deba eta Mutriku. Era horretara, Euskal Kostaldeko Geoparkea busitzen duen uren artean nabigatzeko aukera aparta dago. Bisita gidatuan Flysch beltza, grisa eta gorriaren nondik norakoak azaltzen dira. Horrez gain, Olatz Karst ezagutzeko aukera dago, kareharriz osaturiko paisaia, baita Debako marismak ikusi eta bertako biosferaren berri edukitzeko ere.

Geoparkean gaude

Euskal kostaldeko Geoparkean gaude, Mutriku eta Deba artean dagoen Arbe badian. Kantauri itsasoko urek inguratzen eta laztantzen gaituzte, eta txoko txikienean ere kresalaren usain gazi-gozoa nabarmentzen da.



ARBE HOTELA

Laranga Auzoa, 5 · Mutriku

943-60 47 49

info@hotelarbe.com

www.hotelarbe.com

Webcama:

<http://194.30.115.154:8081>

HITZA

Ondarroa

PLAZA GORRIA



Garazi Etxaburu Aulestia



Garazi Etxaburu Aulestia
(Dantzaria, sortzailea eta dantza irakaslea)

«Gustatzen zait plazan adinekoak ikustea, atsegin hartzen eta konpainian»

Pantaila bat modura deskribatu du Plaza Gorria Garazi Etxaburuk, eta gustuko du handik ikusten duena. Etxeagaz, naturagaz eta herriagaz josten du, eta horregatik du toki kuttun.

Gurasoen etxe pare-parean dago Arta Bideko plaza. «Atzeko lerroko eraikin guztiek daukate aurrean beste eraikin bat, baina gureak ez. Plazan sekula ez da eraiki, eta ez da eraikiko. Beti egongo da tartetxo hau. Zineko pantaila bat balitz modura ageri zaigu espazio ireki hori etxetik begi bistan, eta zoragarria da», adierazi du dantzariak.

Naturagaz eta askatasunagaz lotzen du berak hango

ikuspegia. Kostaldea ikusi daiteke bertatik, Donostiaraino eta oraindik eta urrutirago ere bai; euria itsasotik sartzen begiztatu, edo olatuen orroa sumatu. Haren goian egonik, portuaren taupada antzematen da. Txalupen sartu-irtena, haien motor hotsa, zamaketa lanen burruna; bizitasuna.

Ikusmira opari

Etxetik ikusten duena horixe da, gutxi-asko, eta horregatik lotzen du Plaza Gorria etxeagaz eta etxetik ikusten denagaz. Konfinamendu garaian, oraindik eta gehiago jabetu zen ikuskatutako opariak.

Umetan sarri jotzen zuen plazara, bizikletan ibiltzera, jolastera edo askaria jatera amonak lagunduta, eta badaki orain beste hainbatek ere gozatzen dutela hango lasaitasunaz haize-kirriaren gozoan, eguzkiaren epelean. Sarri dabilta adinekoak gorritik berdera doazen txatalez osatutako espazioan. «Euren leku bihurtu da, eta polita da. Gustatzen zait haiek ikustea, atsegin hartzen eta bata bestearen konpainian».



ONDARROAKO UDALA
TURISMO BULEGOA
94-683 19 51

Erribera, 9 (Kofradia Zaharra)
turismobulegoa@ondarroa.eus
www.ondarroa.eus
www.udalbarriak.eus



Berriatua

BOLINENKO ERROTARAKO BIDEA



Lore Bengoetxea Ibazeta

Gaitz egiten zaio Ainara Santamariari Berriatuko leku bakarra aukeratzea, bai Bolineneko errota bueltako paseoa, bai haitzak gustatzen zaizkiolako: bata herri gunean, eta bestea kostan.

Berriatuko lurrak, bere 20 kilometro karratuekin, itsasoraino iristen dira. Hain zuzen, Berriatuko itsasertza berezi-berezia da ikerlariarentzat. Haitz bat bakarra aukeratu barik —aldatzea gustatzen zaio-eta—, dio herriko leku ederrenetakoa dela, eta arrazoiak eman: «Toki lasaia da, eta arratsaldeetan eguzkiak gogor jotzen duenean gerizpean egotea edo itsasoan ur freskotan bainatzea plazer hutsa da».

Bainu freskagarri eta guzti

Alabaina, ez da hainbestetan joaten haitzetara. Egunero-koan, beste bide batzuk ditu maiztuago, eta horien artean kuttunena Bolineneko Errota bueltako ibilbidea, erreka ondotik. «Lehen egunero joaten nintzen hara txakurragaz. Oso leku argitsua eta eguzkitsua da, eta gustura hartzen da eguraldi goibel eta hezeen osteko lehen eguzki printzen epeltasuna», dio.

Herriko jendearentzat bada leku ezaguna Bolineneko buelta hori, nahiz eta apenas inor ere ez egon. Esan du lasaia eta polita dela, ur jauzi eta guzti. «Errekan bainu freskagarria hartzeko ere aproposa da. Bestalde, sasoian egon beharrik ez dago handik ibiltzeko, ze ibilbide motza eta erreza da, aldapa handirik gabekoa».



**Ainara
Santamaria**
Barinagarrementeria
(Ikerlaria)

**«Gustura hartzen da
han eguraldi goibelen
osteko lehen eguzki
printzen epeltasuna»**

Bolineneko errota XVIII. mendekoa da. Herriko beste errotek, Obekola, Andonegi eta gainerakoek, izen propioa zeukaten. Aldiz, honek ez. Lehen Berriatuko errota deitzen zioten, Bolinenekoa deitzen hasi ziren arte. 1983ko uholdeetan, Bolineneko etxea eta errota hondatu egin ziren.



BERRIATUA ELIZATEKO UDALA

Herriko plaza, 1

94-613 70 30

Faxa: 94-613 70 27

udala@berriatua.eus

www.berriatua.eus

HITZA

Elikagai, artisau eta animalia
AZOKA
BERRIATUAN 2025

AZAROAK 22

10:00etatik 14:00etara

HERRIKO PLAZAN

12:30 KALEJIRA Tarine Udal

Musika Eskolako trikitilariekin.

Arratsaldean, ZESTA PARTIDUAK.

38. Berritxu Saria. FINALAK

Elikagaiak

Gazta, eztia,
baserri eta arrain
kontserbak, ogia
eta gozoak,
ahatekiak, taloak,
sagardoa...

Artisauak

Bitxiak, poltsak,
erropak, saskiak...

Animaliak

Behiak, idiak,
zaldia, potxokak,
poniak, astoak, oiloak,
antzarrak eta mundu
guztiko hegaztiak.



ANTOLATZAILEAK



BERRIATUKO UDALA



ZESTA ESKOLA

LAGUNTZAILEAK:



LEA ARTIBAI
LANDA GARAPENA



**Hamen
Bertokoa**

Markina-Xemein

ZAPOLAZPIA



Alberto Unamuno Urkitza

Ahaztuen Oroimena elkarteak bigarren guda lerroko memoria ibilbidea dauka garatuta Zapolazpi inguruan, eta Zapolazpia da, hain zuzen, Alberto Unamuno taldeko kidearen Markina-Xemeingo tokirik kuttunena.

Zapolako bunkerrera bidea garbitzeko lanak amaitzen ari zirela eduki zuen elkarteak Zapolazpiako bunkerraren berri, eta biak auzolanean eta udalaren laguntzagaz lotuz osatu zuen memoria ibilbidea. Balio handia ematen dio Unamunok. «Memoria toki bat da, galduta egon dena, eta berreskuratu egin dugu», adierazi du. Aurkikuntzan sakonduaz jakin dute bunkerrak bertako inguruetakoz bizilagunek eta Gipuzkoatik eta Ondarroatik etorritako errefuxiatuek egin zituztela.

Jakingarri guztiak udaletxe atzeko panelean eta Zapolakoan jarri dituzte, eta ibilaldi gidatuetan ere azaltzen dituzte, horretara gonbidatzen dituzten aldiro. Datu bat ere badakar taldekideak, Markina-Xemein, Etxebarria eta Eibarko lurretan kokatutako instalazio hauek berezi egiten dituen ezaugarri bat: «Hemengoek ez zuten parte hartu gerran. Gernikarantz erretiratu egin behar izan ziren bonbardaketa egunetan».

Balioz betea

«Zapolazpitik, lehen guda lerroa kokatu zen ingurune guztia dago begien bistan, bai matxinatuen lerroa, bai euskal milizien lerroa, eta Markina-Xemeinen ikuspegi zoragarria», esan du, inguruak balio historikoa eta paisajistikoa uztartzen dituen erakusle. Bertara heltzeko bideei dagokienez, bi dira: bata gogorragoa (Meabetik) eta beste erreazagoa (Santa Eufemitik), bakoitzaren gustuen eta sasoiaren arabera aukeran.



Alberto Unamuno Urkitza
(Ahaztuen Oroimena)

«Memoria toki bat da, galduta egon dena, eta berreskuratu egin dugu»



MARKINA-XEMEINGO UDALA

Goikoportala, 3
94-616 74 54

WhatsApp: 688 84 49 95

udala@markina-xemein.eus

www.markina-xemein.eus

www.markinaxemeinturismoa.eus




Etxebarria

ANTSOTEGI HOTELA



Harro egoteko moduko txokoa



Antsotegiko burdinolaz maitemindurik eta balioan jarrita, orain 22 urte Emilio Hernando eta Kata Etxebarriak Hotela ireki zuten. Semeak ametsean batuta, proiektuaren bilakaeraren protagonista izan dira. Antsotegiren xarma zaindu eta burdinolaren historia bezeroei transmititzeagaz bat, inguruon aberastasun naturalean jarri dute arreta urte hauetan.

Izan ere, Hernando-Etxebarria sendiaren bizipenak beti egon izan dira mendiagaz lotuta, eta gurasoengandik jasotako pasio hori ogibide bihurtu dute semeek hotelaren baitan. Ostatua eta jatetxe zerbitzua dira bere egiteko eraren adibide esanguratsu. O kilometro filosofiagaz bat eginda, eta gustu oro eta euskal gastronomia ardatz hartuta, besteak beste, eguneko menua eta karta opatzen dituzte: etxeko sukaldaritzaz, bertakoa eta tradizionala, non kalitate handiko produktuak erabiltzen dituzten.

Gainera, eguen, bariku eta domeka gauetan pizza ederra dastatzeko aukera ematen dute, eskuz egina eta egur labean prestatua. Horrez gain, asteburuetan dastaketa menuak eskaintzen dira eta karta eskaintza zabala. Jantokiaren ordutegia hauxe da: 13:00etatik 15:30era eta 20:00etatik 22:30era.

Bizkaian hotel bakarra da turismo aktiboko enpresa daukana: Leaktibai. Espeleologia, puenting, eskalada, uretako jarduerak eta udalekuak eskaintzen dituzte. Horrenbestez, eskualde osoa ezagutzeko aukera daukate Antsotegi bezeroek.



Egindako lanaren fruitu

Orain arteko ibilbidea oinarri, aurrera begira hitz egin du Hernandok. «Nortzuk garen beti gogoan hartuta, oso harro gaude proiektuagaz; oso momentu onean gaude, eta ondo kokatuta, lanaren fruitu. Oraindik ez dugu beharra amaitu, ez gara tontorrera heldu, eta ostean jaitsi egin behar da, ze mendia etxean amaitzen da; baina bidea topatu dugu».

ANTSOTEGI
HOTELA | JATETXEA



ANTSOTEGI
HOTELA-JATETXEA

Altzaa auzoa, 15
Etxebarria

94-616 91 00

antsotegi@antsotegi.com

www.antsotegi.com

www.leaktibai.eus

Etxebarria



Lore Bengoetxea Ibazeta

Herritarrak biltzeko gunea da Peñanekua plaza, eta, era berean, Mikel Lertxundi artista berri-tuarraren artelan esanguratsu baten kokapena ere bada. Arrazoi bi horiengatik du gustuko eta toki kuttun Leire Gandiaga Arrieta etxebarritarrek.

Plaza berria deitzen diote bertokoek. «Betitik izen horregaz ezagutu dut, nahiz eta aspaldikoa izan eta berri-tik gutxi eduki», adierazi du. Ofizialki Peñanekua izenekoa, Mikel Lertxundiren konposizio deigarri bat dauka erdian, «Indargei», sinbolismoz josia. Sortzailearen gustuko hiru elementuak erabilia, alegia, harria, burdina eta egurra, zesta jokoa irudikatzen du, ez halabeharrez. Izan ere, Gandiagak gogorarazi duenez, Etxebarriak lotura estua dauka zestagaz. Pilotari ugari eman ditu, tartean bere senide asko, eta horregatik ere bada berezi beretzat.

Gogoan dauka herriko jaietan, santixauetan, artelanak gazte egunaren baitako jolasetan hartzen zuen protagonismoa. Koadrilan 2,14 metroko esferako harri gainera igo eta elkarri helduta «Mundua geurea da!» oihukatzea zuten prenda eta gustuko betekizun.

Leku bizia

Jaiak plazan hasten dituzte, eta horrek ere egiten du aparteko. Hala eta guztiz ere, urte guztian da herritarren bilgune Gandiagaren esanetan, jaietan eta jaietatik kanpo. Dio «leku alaia» dela, erakusten duen bizitasunagatik. «Hara joan eta alde batean umeak jolasten ikusten dituzu, soka



Leire Gandiaga Arrieta
(Psikologoa)

«Leku alaia da, erakusten duen bizitasunagatik; herria batzeko lekua»

saltoan, futbolearen edo beste zer edo zertan; eta harmailetan gurasoak edo eta aitona-amonak bildu daitezke, haien zaintzaile, edo aste guztian herritik kanpo ibili diren ikasleak. Aberasgarria da. Herria batzeko lekua».



ETXEBARRIKO UDALA

Peñanekua plaza, 1
94-616 64 32
www.etxebarria.biz

HITZA

Ziortza-Bolibar

PLAZA



Lore Bengoetxea Ibazeta



Jose Antonio Illoro
(Pilotari ohia)

**«Udaberri bueltan
hasi eta urrira arte,
erromesak
hemen dira»**

Plaza gustatzen zaio gehien Jose Antonio Illorio Arregiri. Pilota jokalaria ohiak hantxe ematen ditu goizak, lagunekin kontu-kontari eta erromesen joan-etorriari adi.

Aurreko etxean jaioa, gogoan ditu garai bateko probak. «Gustuko nituen, eta eremua zakoeekin zarratzen zuten arren, handik ikusi ahal nituen nik. Orain, oster, ez dira antolatzen, egun bereziren bat edo ez bada», esan du. Ordutik, espazioa ia aldatu gabe dago. Proba lekua, hegalean, berdina dago. «Plazako galtzada-harria, horixe da desberdina. Besterik ez».

Erdigunean kokatuta, lehen modura orain, ziortza-bolibartarren batzeko leku da, baita erromesen gureleku ere. «Udaberri bueltan hasi eta urriaren erdira arte, egunero-egunero, hemen dira, nahiz bakarrik, nahiz talde txiki zein handietan», azaldu du. Horren eraginez, hizkuntza asko entzuten dira —«Esango nuke frantsesa gehien. Ingelesa ere bai, eh?»—. Urratsa asko aldentu barik, bero handia egiten duenean, Santo Tomas elizaren atariko gerizpeagaz baliatzen dira ibilera luzeen nekea arintzeko.

Sustraiak beti gogoan

Pilotari asko eman ditu herriak. Bat, Illoro bera. Txikito de Bolibar izenagaz egin zen ezagun Ameriketara zesta-puntan. Beste hainbat modura, gazte joan zen hara, 16 urte-gaz, eta 30 urte egin zituen frontoirik frontoi. «Hasierako urteetan ez, baina gainerakoetan, behin hango denboraldia amaituta, etorri egiten nintzen, beti tiratu egin izan nau eta. Izan ere, hango bizimodua desberdina da, eta beti gogoan nuen nire jaioterria. Beti maite izan dut».



ZIORTZA-BOLIBARKO UDALA

Simon Bolibar plaza, 3
94-616 57 27
www.ziortza-bolibar.eus
udala@ziortza-bolibar.eus

Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz

GERRIKAITZEKO PLAZA



Gaizka Muñoz Etxebarria

Hamarkada bat baino gehiago darama Albizuk Munitibartik kanpo bizitzen. «Beraz, leku kuttuna pentsatzen jarrita, oroitzapenera jo dut: alegia, non kokatzen dudanez burua Munitibarren. Eta Gerrikaitzeko plaza datorkit», adierazi du.

Gerrikaitz Munitibarko auzo bat da, eta bertako plaza «berezia» da irakasle eta ikerlariarentzat. «Harrizko harmaila erdizirkular batzuek inguratzen dute, eta izaera berezia ematen diote. Anfiteatro itxura hartzen du», esan du. Munitibartarrak «oso oroitzapen ederrak» dauzka plaza horregaz lotuta, bai haurtzarokoak, bai gaztarokoak. «Bereziki, Gerrikaitzeko jaiekin lotuta daude. Irailaren hasieran izaten dira, eta munitibartarrentzat udako azken jaiak izaten direnez, oso giro berezia sortzen da. Udaren amaieraren eta ikasturte berriaren arteko trantsizioa egiten laguntzen du».

Agertokia deskribatu du Albizuk. «Plaza da Gerrikaitzeko jaien epizentro nagusia. Txosna txiki bat ipintzen da; eszenatokia ere bai. Ikuskizunen bat egotekotan, askotan harrizko harmailan eserita ikusten dugu, eta musika edo erromeria antolatzen bada, animatuenak plazaren erdian egoten dira dantzan, beste batzuk harmailetan jarrita lasaia eta beste batzuk txosnan».

Belaunaldi askorentzat toki kuttun

Albizuk pentsatzen du belaunaldi askorentzat dela toki kuttun; «munitibartarrentzat, orokorrean, eta gerri-



Uzuri Albizu Mallea
(Irakaslea eta ikertzailea)

«Gerrikaitzekoak udako azken jaiak direnez, oso giro berezia sortzen da»

kaiztarrentzat bereziki». Hara zerk lotzen duen azaldu du: gerrikaiztarra du aita, eta nahiz eta bera herrian hazi den, «lotura emozional handia» dauka haren baserriagaz. Hortaz, baita auzoagaz ere. Eta zehaztu du: «Gerrikaitzek aparteko nortasuna dauka».



**MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA**

Herriko plaza, 6
94-616 40 07
www.munitibar.org
alkatetza@munitibar.org
idazkaritza@munitibar.org

Aulesti

PARKEA



Eli Azpiazu Armaolea



**Ygnacio
Contrera
Benitez**
(Soldatzailea)

**«Herri osoa bertan
biltzen da; jendeagaz
egon eta hitz egiteko
leku ezin hobe da»**

Ygnacio Contrera Benitez paraguayarra da, eta hiru urte daramatza Aulestin bizitzen. Herriko toki kuttun bat izendatzeko eskatuta, ez du zalantzarik izan: parkea. «Denetarik» dauka aukeratu duen lekuak, Contrerasek esan duenez. «Zabala da, alboan erreka dauka, bainu freskagarria hartzeko aproposa, futbol zelaia, umeentzako jolas eremu bat, barbakoa eta mahaia. Oso konpletoa da», adierazi du.

Bakarrik baino, familian eta lagun artean egoteko gustatzen zaio. Asteburuetan joan ohi da, eta astegunetan arratsaldetan ere bai, lanetik irten eta gero. «Tererea

hartzen egoten naiz, gure herrialdeko edari tipikoa. Hotz hartzen da, eta ondo sartzen da bero dagoenean», azaldu du. Kolonaurreko Amerikan sustraituta, freskagarri ezeze, harremanetarako tresna ere bada «besteari denbora pixka bat eskaini eta momentuak partekatzeko» da eta.

Lasaia eta atsegina

Arrazoi horregatik, aproposa da zelaian topatzen duen girorako. «Normalean, udan herri osoa bertan biltzen da, eta jendeagaz egon eta hitz egiteko leku ezin hobe da». Hori bai: aulestiarrek giro ederragaz bertara joanagatik, ez da jendez lepo egoten. «Oso leku lasaia eta atsegina da, eta oso ondo zainduta dago, hemen jendeak naturari balio handia ematen dio-eta», nabarmendu du.

Contrerak zerrendatu dituen ezaugarriek erakarritza, bertokoek ezeze, herritik kanpoko jende askok ere jotzen du Aulestiko parkera egun pasa, Lea erreka milaka urte-tan etengabeko joanean busti eta edertu dituen paisaiatz gozatu eta haren parte izatera.



AULESTIKO UDALA

Donibane plaza, 1
94-627 90 06
idazkaria@aulesti.eus
www.aulesti.eus

Lekeitio

ABADEEN MOILA



Lore Bengoetxea Ibazeta

Abadeen moila da Ander Okamika Bengoetxearen tokirik kuttunena. «Eguraldi ona egiten duenean, toki epela da; eta udazkenean, neguan eta udaberrian, han jarrita oso gustura hartzen dira eguzki izpiak», adierazi du.

Gauza gehiagotatik ere nabarmendu du. «Kristoren bistak» dauzka esaten duenez, ze «inguruko leku esanguratsuenak» begi bistan dira bertatik, hots, Otoio eta Lumentza mendiak, Karraspio, Isuntza eta Salbaje hondartzak eta irla. Gainera, oso leku esanguratsua da bereztat, umetako oroitzapenekin lotzen duelako. «Txikitan batez ere udan portuan jolasten eta bainatzen ibiltzen ginen; denbora asko ematen genuen han», dio. Gaur egun ere sarri jotzen du hara; eta berak bezala, herritar askok ere bai. «Herri erdigunean dago, portuaren baitan, eta lekeitiarrek herritik paseatzera irteten dutenean, beti egiten dute joan-etorria Abadeen moilatik, guztientzat da berezia-eta », baieztatu du.

Bizikleta gainean ere bai

Portuaren gaurko egitura XIX. mendearen amaieran finkatu zuten, Jose Lekerika ingeniariaren proiektuari jarraituz. Lau moila eraiki zituzten: Abadeen moila, plazaren azpikoa (gaurko Independentzia enparantzaren azpikoa), Txatxo kaia eta iparraldekoa edo *tinglaur*. Ordura arte, Arranegi kaleko etxeek hondartzara edo itsasora ematen zuten zuzenean.



Ander Okamika Bengoetxea
(Txirrindularia)

«Txikitan jolasten eta bainatzen ibiltzen ginen; denbora asko ematen genuen han»

Txirrindularia da Okamika, eta bizikleta gainean ere ibiltzen da Abadeen moilatik, kirol probak tarteko. Horrelakoetan, lekeitiarrek ibilbidean sartu ohi dute, dioten estimuaren erakusle. San Silbestre, Lekeitio bizirik eta triatloia aipatu ditu horren adibidetzat.



 **lekeitio**turismo.eus

TURISMO BULEGOA
Santa Elena Etorbidea, 2
94-684 40 17
turismo@lekeitio.eus

Ispaster

SANTIXA ZELAIA



**Alfonso
Mendikute
Arrizubieta**
(Jai Batzordeko
kidea)

**«Egun eguzkitsuetan,
Santixa zelaiko
haritzak kristoren
gerizpea ematen du»**

Herriaren erdigunetik 300 metrora dago Alfonso Mendikute Arrizubietaren gustuko tokia: Santixa zelaia. Hango haritz zaharra antzinako denboren lekuko da. Herriko patroia San Miguel izan arren, jai nagusia Santixa da, eta berdegune hartan egiten zen erromeria eta jai, nahiz eta orain ospakizunak herri erdira pasatuta egon.

Solo bizia

Izen bereko baseliza lekuko, bizi egoten zen hura inguratzen duen soloa Santixa Egunean. Dantza eta kirol ikuskizunaren eta erromeriaren laguntzagaz giroten ziren bazterrak, eta taberna ere jartzen zuten jaiaz gozatu bitartean mokadua hartzeko. Aspaldiko garaia haiek. Den-dena ez da aldatu, ordea, orduan modura gaur egun ere mantentzen da-eta meza, baina lehen goiz guztiko jai bertan egiten zen, eta gaur egun elizkizuna baino ez.

Jaietan ez ezik, urte guztian ere bazeukan bertara joateko ohitura Mendikutek. «Umetan zein gaztetan hantxe batzen ginen jolasteko, eta Zubietako jauregiko udako futbol txapelketarako ere entrenatzeko lekua genuen. Oroitzapen politak dauzkat», gogorarazi du.

Xarma mantentzen du Santixako zelaia Mendikute-arentzat. «Udalak banku batzuk eta mahaia jarri zituen; atsedeen leku bat. Bertan jesarri, zerbait jan eta kontuak esaten ibiltzeko toki aproposa da, eta egun eguzkitsuetan haritzak kristoren gerizpea ematen du». Horrez gain, baseliza bisitatzeko aukera ere badago. XV. mendearen amaieran estilo gotikoan eraikia, XVI. mende erdiko berpizkunde garaian berritu zuten, ezaugarri nagusiak aldatu barik.



Alfonso Mendikute Arrizubieta



ISPASTERKO UDALA

Ellexalde auzoa, 9-1.
94-684 40 25/ 94-684 29 99
udala@ispaster.eus
www.ispaster.eus

Mendexa

HAITZAK

Xabier Iturraspe Gandiaga

Laperri deitzen diote Mendexari bertakoek ohitura handia daukatelako haitzetan lapatan ibiltzeko. Xabier Iturraspe bera ere egoten zen umetan, bai lapatan, bai karramarrotan, eta bertan ikasi zuen igeri egiten. Garai haien oroitzapen «oso ona» dauka, eta harkaitzek akorduokin lotzen dute. Horregatik, gaur egun ere asko gustatzen zaizkio. Horregatik eta lasaitasuna eta bakea ematen diotelako.

«Mendexan beti egon da haitzetarako ohitura, familian eta lagunekin. Nik etxetik jaso dut joera hori: badakit aita eta aitita ere joaten zirela gaztetan, eta gu etxeko umeok ere bertan batzen ginen», dio.

Txoko bat baino gehiago

Hainbat daude, esanguratsuenak Hartzabal, Endai azpia —unibertsitate garaian hango kanpinean egindako lana ere badu Iturraspek gomuta gozo— edo Anpanarri, Arrio handia eta Arrio txikia, Amentzela, Harbaltza eta Baurdopea. «Gu normalean Harbaltzekoak izan gara. Hango putzuan ikasi genuen igeri egiten, eta gaur egun ere familiako umeekin hara goaz», adierazi du.

Haitzak beti berdin eta beti desberdin. «Kuriosoa da, ze urte batetik bestera haien itxura aldatu egiten da neguan olatuekin higatzen doazelako. Beraz, kanbiatuta topatu ahal ditugu. Bidea bera ere bai. Horrek beti ematen dio abentura puntu bat plan honi, are gehiago sokatik jaitsi beharra badago».



**Xabier
Iturraspe
Gandiaga**
(Medikua)

**«Urtetik urtera
haitzen itxura aldatu
egiten da, olatuekin
higatzen doazelako»**

Umetan lapatan, karramarrotan eta igeri egiten ikasten ikusi zuten bazterrok lasai egoteko baliatzen ditu orain. «Leku espeziala da; aproposa irakurtzeko, lagunekin egoteko eta munduko zaratatik pixka bat deskonektatzeko», esan du.



MENDEXAKO UDALA


Herriko plaza, z/g
94-684 21 06/ 673 09 85 97

Faxa: 94-684 02 11
idazkaritza.mendexa@bizkaia.org
www.mendexa.net



ingenio & natura

GR 38. ARDO eta
ARRAINAREN IBILBIDEA



www.leaibarra.eus



Elخالde, 1 - 48289 GIZABURUAGA | tf.: 94-684 29 82 | leaibarra@bizkaia.org

Administrazioa: 94-684 29 82 • Ongizatea: 94-684 29 63 • Garapena: 94-684 44 23



MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA



AULESTIKO
UDALA



GIZABURUAGAKO
UDALA



AMOROTOKO
UDALA



MENDEXAKO
UDALA